

Jose Antonio Arana Martijaren omenez...

Egun-on.

Lehenik eta behin, atseginez, beste batzuen artean Jose Antonio Arana Martijari eskaintzen zaion omenaldi honetan parte hartzeko Euskaltzaindiaren gonbidapena eskertu nahi nuke.

Bestalde, bere berezitasunagatik hain hunkigarria den ekitaldi honetara bertaratutako guztiak agurtu nahi zaituztet.

Jose Antonio, besteak beste, musikologo, folklore eta bertsolaritzaren ikertzaile izendatzen dute. Langile nekazina, aita Barandiarenen eta Resurreccion Maria de Azkueren jarraitzaile leiala....baina guztien gain, bere lanaz maitemindua, BETI.

Jose Antoniok, musikari profesionala izan gabe, etxean entzun eta egiten genuenari esker, umetatik bere irakasleek irakatsiari eta geroago seminarioan ikasi eta dastatu zuenari esker, estetikoki musika baloratzen zekien.

Dudarik gabe, gure musikari garrantzitsuenen kantutegi handiak landu zituen. Euskal opera, euskal musika profano zein erlijiosoa, egungo konposatzaile handiak, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Rafael de Castro, Joakin Pildain, Francisco Escudero...besteak beste, beti ikasteko asmoarekin eta seguruenik, gainontzekoei asko irakatsiaz

Seminariora joan aurretik iada Gernikako parrokiako koruan tiple zen eta piano eta organo eskolak jasotzen zituen, Juan Ojanguren organo-jotzaile ezagunaren eskutik. Juan izan zen koruan polifonia sartu eta gregorianoa kantatzen irakatsi ziona. Tiple modura, oso gazte izanik, gregoriano mezak abesten zituen.

Seminarioan, garai hartan bere ikasketetan sakontzeko leku aparta, armonia ikasten hasi zen.

1947an, etxera bueltan, neba-arreba guztiok miresten genuen.

Nire neba zaharrrena ezagutzen hasi nintzen. Artetsua zen denetarako. Gogoan ditud, gabonetan, ibai eta zubiak barne muntatzen zizkigun jaiotzak. Etxean pianoa jo eta abestu egiten zen. Chopin entzuten dudak bakoitzean nire haurtzaroz oroitzen naiz. Nik, melodiekin imitatu nahi nituen neba-arreba nagusiagoak eta teklatu gainean nota egokiak ez nituen topatzen haserretu egiten nintzen. Ziur nengoen, handia egitean pianoa jotzen ikasiko nuela.

Etxera itzultzean, ezin izan zuen batxilergo titulua balioztatu eta zuzenean errebalidara aurkeztuz lortu zuen.

Unibertsitate aurreko kurtsoa prestatu eta Valladolideko unibertsitatean aurkeztu zen. Ohorezko matrikula ematen zioten eta beka Deustuko unibertsitatean ikasten jarraitzeko.

Oraindik Muxikan bizi ginen eta gogoan dut Gernikara joan ahal izateko oparitu zioten bizikleta. Bizikleta harekin ikasi genuen txikiok erorketa guzti haietako kolpeak jasotzen. Mutilentzako bizikleta zen, baina garai hartan ezer ez zen arazo. Erabiltzen ikasi genuen...Geroago, nesken bizikleta izan genuen baita.

Parrokiko korura itzuli zen eta tenore gisa abesten zuen. Piskana piskana, berak esaten zidan modura, musika gustatzen hasi zitzaion.

Askotan musikari buruz izaten genituen ondorengo gure berrikeretan, gauza bat argi genuen biok: zerbait gustuko duzunean eta gainontzekoek atsegin dutela nabaritzen duzunean, ez dago ez ordurik ez egunik. Sortzen dizun plazerra da haren ordaina.

1950eko urtarrilaren 5ean, Gernikara itzuli ginen, baina txikiok, ezusteko latza izan genuen 6ean...erregeek ez zekiten non bizi ginen eta idatzi bat utzi ziguten, sentitzen zutela esanaz, baina gure gurasoek kontutan izango zutela...eta hala izan zen, 7an bagenuen jostailutxoren bat, nire kasuan panpinatxo bat.

Hurrengo urteko erregeak askoz eskuzabalagoak izan ziren eta etxean Melltxor, Gaspar eta Baltasarren bisita ere izan genuen! Brandy kopatxo bat hartzera gonbidatu genituen. A ze poza! Errege Magoak etxean!!!Kabalgata goizaldera ospatzen zen eta pentsatzekoa den bezala, gure neba eta lagunak ziren errege magoak.

Nire neba Eduardo Portugaleteko Santa Maria ikastetxera bidali zuten batxilergoa egitera, eta bertan tiple bakarlarari modura hautatu zuten koruan.

Gu Beatriz Gomeza anderearekin musika ikasten hasi ginen. Niretzat, klase haietan orduak konturatzeke igarotzen ziren. Gogoan dut nola errepikatzen nuen: ze polita den hori Doña Beatriz, berriro jo ezazu. Klasearen ondoren entzutera gelditzen nintzen. Etxe hura, niretzat, "eden" a zen, bere alaba Belenek, aingeruen modura jotzen zuelako pianoa.

Denbora aurrera, nire irakaslearen etxean hainbeste ordu igarotzen nituen, bere ikasle gaztetxoenei klaseren bat emateko baimena izaten nuen.

Garai haietan, pianoko azken kurtsoetan nenbilan.

58ko gabonetan, Gernikan koru lehiaketa antolatu zen. Antolatzaileen artean Jose Antonio zegoen.

Bi deialdi zeuden, bata helduentzat eta bestea haurrentzat. Helduen atalean Gernikako zein beste herrietako taldeak aurkeztu ziren.

Berdin gertatu zen haurren koruen kasuan ere. Txikien artean, baldintza ondorengoak zen: gehienez 10 urte izatea partaide zaharrenak eta taldea 10 kideetik ez pasatzea.

Beatrizek, bere ikasleen artean taldea osatzera animatu ninduen. Taldekietako bat 8 urte zituen Amaia gure ahizpa txikia zen. Dударik ez, nire irakaslea eta neba nagusiak lagundu zidatela. Gogoan dut txikien behartutako lana ADESTE FIDELIS

zela.

Lehiaketaren emaitza ondorengo izan zen:

Helduen mailan:

1. saria. Jose Antonio Aranak zuzendutako korua

2. saria. Javier Aranak zuzendutako korua

...

Haurren mailan:

1. saria. Begoña Aranak zuzendutako korua

Garai haietan Trapp familia deitzen ziguten.

Hainbeste neba-arreba izanik...mutiletakoren batek kalean urrutira ikusiz gero... Beethovenen "Para Elisa" melidoa txistukatzen ziguten agur gisa.

Gaur egun nire neba Kikek agurrarekin jarraitzen du. Gernikan banabil eta "Para Elisa" entzuten badut badakit bera gertu dabilela.

Iribarre eragiten didan beste gogorapen bat...59ko abenduan, Jose Antoniok Iruñara bidaia egin beharra zuen katedraleko kapera maisu zen Aurelio Sagasetarekin konturen batzuk zehazteko. Jose Antonio eta emaztegaiak bidaia batera egin nahi zuten, baina oraindik ezkongai zirenez, ez zegoen baimendua bakarrik joatea...Zeinek lagunduko zien bidaia batera egin zezaten baimena lortzeko????...Begok.

Iruñera iritsi eta Castillo plazan utzi ninduten bueltatxo bat eman nezan. Ez dut sekula halako hotzik sentitu, hotzak nindoan kalean barna, ez nekien non sartu, taberna batean? emakumezkoa bakarrik, atrebitu samar, lotsagabe suertatzen zen... zer egin???Liburu bat erosi, eliza batera sartu nintzen, eta beirate baten azpian irakurtzeari ekin nion...

80ko. hamarkadan, Francisco Escudero maisua bere Gernika opera lantzen ari den garaian, ni, bere konposaketa klaseetara joaten nintzen Donostiara. Nik, Jose Antonio eta maisuaren arteko mezulari lana betetzen nuen. Beti zuen mezuren bat.

Joan etorri hauetako batean, Francisco jaunak gutun bat bidali zion Jose Antoniori, Gernikako elizako ezkillen grabazioa eskatuz. Ondorengo eskolara, Jose Antoniok grabatutako cassettearekin agertu nintzen.

Geroago, 1987an Arriagan estreinatu zen operan entzungo ziren kanpaia haiek.

Hau zen Jose Antonio. Beti, herrian ospatzen zen guztian parte hartuz.

Lizeoan antzezlanaren antolatzen zela? han izango zen Jose Antonio

Zartzuela? han izango zen Jose Antonio

Korua zuzentzen? han izango zen Jose Antonio

Koruak zetoze? han izango zen Jose Antonio

Gotzaina zetoze? han izango zen Jose Antonio

Aparteko liturgiak ospatzen zirela? han izango zen Jose Antonio
Adoracion nocturna egiten zela? han izango zen Jose Antonio
Marijeseak zirela? han izango zen Jose Antonio
Guardia Zibilen hainbaten atxilotxe eta espetxeratzeak? ba orduan ere han zen Jose Antonio...

Familian, oso kolpe gogorra izan zen. Gertaera haren ondorioz, gure aitak hemiplejia sufritu zuen eta gure bizitzek erabateko aldaketa izan zuten.

Basauriko kartzelan, denbora gutxian egon arren, errepresaliatuekin korua osatzen saiatu zen, baina zorionez kasu honetan ez zen posible izan. Bere nahiak betetzeko denborarik ez zioten eman. Gehixeago eduki izan balute...guztiek abesten amaituko zuten kartzelan.

Jose Antonio, kantaria, konposatzailea, ikertzailea, editorea...izan zen...hori dena...urte latz haietan!

Amaitzeko. Jose Antoniori agur maitekor bat elarazteko bide egokiena, musika momentu batekin gozaraziaz dela iruditu zait. Horretarako atseginez eskeini diren lagun eta familiartekoak daude gurekin. Eskerrik asko.

Bilbon 2012ko Urtarrillaren 27an
Begoña Arana